Erabiltzaileen satisfazioa neurtzeko, hurrengo baieztapenekin zuten adostasun-maila adieraztea eskatu zitzaion:

“Produktu, ekintza edo zerbitzuak nire igurikapenak bete ditu”

ADOSTASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Erabat ados	% 44,8
Ados	% 43,6
Ez ados, ez desados	% 10,3
Desados	% 0,6
Erabat desados	% 0
Ez daki edo ez du erantzun	% 0,6
GUZTIRA	% 100

Taula: produktuek erabiltzaileen igurikapenak bete dituzten




Grafikoa: produktuek erabiltzaileen igurikapenak bete dituzten

“Aukera izango banu, berriro parte hartuko nuke edo berriro erabiliko nuke”

ADOSTASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Erabat ados	% 80
Ados	% 15,8
Ez ados, ez desados	% 3,6
Desados	% 0,6
Erabat desados	% 0
Ez daki edo ez du erantzun	% 0
GUZTIRA	% 100

Taula: aukera izan ezker, berriro erabiliko luketen




Grafikoa: aukera izan ezker, berriro erabiliko luketen

“Ekintza edo zerbitzuan parte hartzeagatik, edo produktu honengatik ordaindu dudana egokia da”

ADOSTASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Erabat ados	% 68,5
Ados	% 16,4
Ez ados, ez desados	% 7,3
Desados	% 1,8
Erabat desados	% 1,8
Ez daki edo ez du erantzun	% 4,2
GUZTIRA	% 100

Taula: ordaindutakoarekiko adostasuna




Grafikoa: ordaindutakoarekiko adostasuna

“Produktu, ekintza edo zerbitzu hau, nire inguruko norbaiti gomendatu diot”

GOMENDATU DUTEN	ERABILTZAILE-KOPURUA
Bai	% 90,3
Ez	% 9,7
GUZTIRA	% 100

Taula: norbaiti gomendatu al dioten



Grafikoa: norbaiti gomendatu al dioten

Satisfazio orokorra

1etik 10erako eskalan, 8,5 da jendeak jarritako batezbesteko nota.

Inpaktua


15.- Erabiltzaileengan izandako inpaktua

Egitasmoek erabiltzaileengan eragindako inpaktua neurtzeko, hurrengo baieztapenekin zuten adostasun-maila adieraztea eskatu zitzaien:

“Egitasmo honi esker, euskara gehiago erabili dut”

ADOSTASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Erabat ados	% 30,3
Ados	% 19,4
Ez ados, ez desados	% 27,9
Desados	% 9,1
Erabat desados	% 6,1
Ez daki edo ez du erantzun	% 7,3
GUZTIRA	% 100

Taula: euskara gehiago erabili duten




Grafikoa: euskara gehiago erabili duten

“Egitasmoari esker, euskararekiko jarrera positiboagoa daukat”

ADOSTASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Erabat ados	% 43,6
Ados	% 23,6
Ez ados, ez desados	% 20
Desados	% 3,6
Erabat desados	% 3
Ez daki edo ez du erantzun	% 6,1
GUZTIRA	% 100

Taula: euskararekiko jarrera positiboagoa duten




Grafikoa: euskararekiko jarrera positiboagoa duten

“Egitasmoari esker, euskarazko harreman-sareak zabaldu ditut”

ADOSTASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Erabat ados	% 46,7
Ados	% 22,4
Ez ados, ez desados	% 18,8
Desados	% 3,6
Erabat desados	% 3
Ez daki edo ez du erantzun	% 5,5
GUZTIRA	% 100

Taula: euskarazko harreman-sareak zabaldu dituzten




Grafikoa: euskarazko harreman-sareak zabaldu dituzten

“Egitasmoari esker, hizkuntzaren ezagutza eta trebetasunak hobetu ditut”

ADOSTASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Erabat ados	%33,9
Ados	%26,7
Ez ados, ez desados	%25,5
Desados	%3
Erabat desados	%4,8
Ez daki edo ez du erantzun	%6,1
GUZTIRA	%100

Taula: hizkuntzaren ezagutza eta trebetasunak hobetu dituzten




Grafikoa: hizkuntzaren ezagutza eta trebetasunak hobetu dituzten

“Egitasmoari esker, euskara lehen baino arlo gehiagotan erabiltzen dut”

ADOSTASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Erabat ados	% 30,3
Ados	% 21,2
Ez ados, ez desados	% 26,1
Desados	% 5,5
Erabat desados	% 7,9
Ez daki edo ez du erantzun	% 9,1
GUZTIRA	% 100

Taula: euskara lehen baino arlo gehiagotan erabiltzen duten



Grafikoa: euskara lehen baino arlo gehiagotan erabiltzen duten

B.- INFORMAZIO KUALITATIBOA

Erabiltzaileek, ekintza, produktu edo zerbitzua aukeratzearen arrazoiei buruzko, egitasmoaren balio bereziari buruzko, gomendatzearen arrazoiei buruzko, eta hobetu beharreko alderdiei buruzko iritzia eman zuten .

Hau da jasotako informazio kualitatiboaren sintesia:

Ekintza, produktu edo zerbitzua aukeratzearen arrazoiak

- Erakunde eta proiektu horrek euskararekiko duen inplikazioagatik
- Kalitatezko jarduerak eskaintzeagatik
- Erreferentzia onak izateagatik
- Harremanak sendotzen dituelako
- Euskal komunitatea trinkotzeagatik
- Euskaraz bizitzeko aukera emateagatik
- Era naturalean euskara lantzeko
- Praktikatzeke aukera ematen duelako
- Euskal testuinguru edo euskal giro bat eskaintzeagatik
- Hizkuntza-ondarea mantentzen laguntzen duelako
- Hutsune bat betetzen duelako
- Normalizaziorako bideak ezagutzeko
- Euskal kultura gehiago ezagutzeko
- Haur eta gurasoen arteko harremanak euskaraz sendotzeko
- Tokikoa delako
- Elkartrukea bultzatzen duelako

Egitasmoaren balio berezia, betetzen duen hutsuneagatik, euskaraz egoteagatik edota bere gailentasunagatik

- Euskarazko bakarra izatea
- Hutsune bat betetzea
- Tokikoa delako, hurbila
- Euskara naturaltasunez erabiltzen irakastea
- Euskaraz bizitzen laguntzea
- Harreman-sareak sortu eta trinkotzen dituela
- Euskal Herri mailakoen kasuan, zabalpen handia izatea
- Oso parte-hartzaileak izatea

Gomendatzearen arrazoiak

- Kalitatezkoa izateagatik
- Harreman-sareak zabaltzen laguntzeagatik
- Euskaraz bizitzen laguntzeagatik
- Euskara barneratzen laguntzen duelako

Zer hobetu beharko litzateke?

- Zabalpen handiagoa egitea
- Maiztasun handiagoz edota denboran gehiago luzatzea
- Baliabide gehiagoz hornitzea: dirua, materiala, pertsonalak ...

5.3.- Erakunde eskatzaileek deialdiari buruz egindako balorazioa

Lau alderdi nagusiri buruz galdetu zaie erakundeei:

- a) Politika eta estrategia: deialdiaren edukiari buruz,
- b) Prozesuak: prozedurari buruz,
- c) Baliabideak: finantzaketari buruz, eta
- d) Lidergotza: HPS-ko teknikariekin izandako harremanari buruz.

A.- INFORMAZIO KUANTITATIBOA

Erakundeei, 0tik 10rako eskala baten bidez, alderdi hauek baloratu zuten:

1.-Politika eta Estrategia: Deialdiaren edukiak

BALORATUTAKO ALDERDIA	BATAZBESTEKO NOTA
Azpi-modalitateek egiten duten estaldura	6,09
Azpi-modalitateen arteko bereizketa	6,36
Edukien balorazio orokorra	6,17

Taula: edukien balorazioa

2.- Prozesuak: deialdiaren prozedura

BALORATUTAKO ALDERDIA	BATAZBESTEKO NOTA
Proiektuen ebaluazioa	5,78
Ebaluazioari buruzko informazioa	4,92
Epeak	4,18
Ebazpena	4,58
Kudeaketa administratiboa	6,47
Prozeduraren balorazio orokorra	5,2

Taula: prozeduraren balorazioa

3.- Baliabideak: Finantzaketa

BALORATUTAKO ALDERDIA	BATAZBESTEKO NOTA
Esleitutako diru-kopurua	4,49
Ordainketa-sistema	6,44
Finantzaketaren balorazio orokorra	7,44

Taula: finantzaketaren balorazioa

4.- HPS-ko teknikariek izandako harremanak

BALORATUTAKO ALDERDIA	BATAZBESTEKO NOTA
Teknikariek emandako arreta	7,44
Teknikarien eraginkortasuna	7,36
Harremanen balorazio orokorra	7,39

Taula: HPS-ko teknikariek izandako harremanen balorazioa

B.- INFORMAZIO KUALITATIBOA

Aurreko alderdiei buruz emandako informazio kualitatiboaren sintesia:

1.- Politika eta Estrategia: Edukiari buruz

Edukiei buruz, iritzi desberdinak jaso dira. Batzuek, azpiatalen errebisioa egitea beharrezkoa dela diote, beste batzuentzat bereizketa hori zurrunegia da, eta beste batzuentzat, dauden moduan ongi daude.

2.- Prozesua; Prozedurari buruz

Erakunde gehienek aipatzen dute deialdia urte hasieran irten beharko litzatekeela, lehenbailehen jakin ahal izateko dirua eskuratuko duten, eta zenbat. Balorazioari buruz informaziorik eskuratzen ez dutela aipatzen dute. Batzuek informazio hori eskuratu nahiko lukete, hurrengo deialdiei begira, zer hobetu behar duten jakiteko. Arintasuna falta dela ere aipatzen da.

3.- Baliabideak: Finantzaketari buruz

Erakunde askok defizita dutela aipatzen dute, baina murrizketak krisi-garaitan ulergarriak direla ere diote gehienek. Erakunde txikiek, haiei eskatutako auto-finantzaketa gehiegizkoa dela esaten dute. Askok deialdi honen ezinbestekotasuna aipatzen dute egitasmoek aurrera egin ahal izateko.

4.- Lidergotza: HPS-ko teknikariekin izandako harremanari buruz

Batzuek, HPS urruna bezala bizi dute, baina gehienek jasotako arreta baloratu eta eskertu egiten dute. Biziki eskertzen da ematen duten laguntza.

5.- Bestelakoak

Deialdiaren izpiritua mantentzea ezinbestekotzat hartzen da, eta deialdia beharrezkoa da euskararen alde lan egiten jarraitu ahal izateko. HPS-tik egiten den lana eskertzen da egitasmo desberdinek aurrera egin ahal izateko.

5.4.- HPS-ko teknikariengandik jasotako informazioa

Alderdi desberdinei buruz jasotako informazio kualitatiboaren sintesia:

1.- Politika eta estrategia:

Deialdi konplikatua da, Euskalgintzaren sektorea oso zabala eta konplikatua delako, eta oso sektore defizitarioa delako. Deialdian azpi-modalitate asko daude, baina hor dagoen asmoa euskalgintzaren inguruan egiten diren guztiek deialdian sarbide izatea da.

Zalantza dago zer den Euskalgintza, ala zer den Euskalgintza deialdiak lagundu beharrekoa.

Politika positiboa egiten da, euskararen alde, eta agian beste leku batzuetatik lagundu beharko liratekeen proiektu batzuk Euskalgintzatik laguntzen dira, bestela laguntzarik jasoko ez luketelako. Normalizazioa lortzen den bitartean, politika positiboa egin behar da..

2.- Prozesuak: Deialdiaren prozeduraz

Epeak laburtu behar dira, erakundeek lehenago jakin beharko luketelako dirua jasoko duten eta zenbat. Sektore defizitarioa da eta arriskua hartzen dute erakundeek. Epeak administrazioaren izaera eta barne-prozesuengatik luzatzen dira, ez dago teknikarien esku. Argi dago, epeak luzatzeak proiektuen hilkortasun-tasa handitzen duela, eta agian oso proiektu onak bidetik gera daitezke, eta hori administrazio beraren helburuen aurkakoa izan daiteke.

3.- Lidergotza

Bi erakunde-mota aurkezten dira: erakunde handiak, agian dirulaguntza gabe ere proiektuak garatzeko aukera izan dezaketenak, eta erakunde txikiak, dirulaguntza ezinbestekoa dutenak. Dena dela, erakunde handiek proiektu ahaltsuak egiten dituzte (erabiltzaile aldetik, eta barne hartutako esparru geografikoagatik), eta horrek puntuazio gehiago ematen du. Sektore honetan, elkarteen arteko elkarlana bultzatu nahi da, emaitza eta inpaktu handiagoa lortze aldera.

Sektore hau ez dago beste batzuk bezain profesionalizatua, batez ere elkarte txikien kasuan.

4.- Baliabideak

Erakunde txikiek zailagoa dute auto-finantzaketa minimoa lortzeko, eta elkarlanaren bidez, baliabideen optimizazioa ere egin zitekeen.

Deialdia diru gehiagoz hornitu beharko litzateke.

Baliabideen optimizazioa egiteko ere, Praktika Onen Banku bat sortzearen ideia badago. Behin proiektu bat diseinatu eta garatu ondoren, beste elkarte batzuen eskura egoteko eta esfortzuak optimizatzeko.

5.- Emaidzak eta Inpaktua

Emaidzei begira, badira gehiago saritzen diren alderdi batzuk: taldekako jarduerak egitea, eta harreman-sareak sortzen dituztenei puntuazio gehiago esleitzea bezala.

6.- Deialdiaren indar-gune eta ahulguneak

Sektore hau ez dago hain profesionalizatua. Horrek, alde ona du, lan egiten duen jendeak konpromiso handia duela Euskalgintzarekiko eta honen izpirituarekiko, hain zuzen. Baina boluntario lana izatea, edota profesionala ez izateak, baditu bere mugak.

Bestalde, ez dago argi zer den Euskalgintzan lagundu beharrekoa, non jarri behar den muga. Gainera, herri edo eskualde, herrialde naiz Euskal Herritik kanpotiko proiektuak laguntzen dira. Administrazio desberdinen arteko akordioa lortu beharko litzateke, bakoitzak proiektu-mota bat laguntzeko. Hori HAKOBA-n egin zitekeen, baina oraingoz ez da egin.

Azkenik, baliabideak mugatuak izatearen arazoa dago. Eskaera handia dago defizitarioa den sektore batetan, eta kasu askotan emandako diru-laguntza oso txikia izaten da.

6.- EUSKALGINTZA SEKTOREAREN EGOERA: SINTEsia

Txostenaren hasieran aipatu bezala, lan honek hiru helburu nagusi zituen. Lehenengoa, Euskalgintza sektorearen egoera ezagutzea, bigarrena, diruz lagundutako proiektuen bidez eragindako inpaktuaren estimazioa egitea, eta hirugarrena, dirulaguntza jasotzen duten erakundeei lagungarria izango zaien tresna bat eratzea.

Atal honetan, jasotako informazio kuantitatibotik eta kualitatibotik abiatuta, sektorearen egoeraren “erradiografia” moduko bat azalduko dugu, eta ondoren, eragindako inpaktuaren estimazioa azaldu. Erakundeei zuzendutako tresna, ordea, hurrengo atalean azalduko dugu, hori baita jasotako enkargua.

Metodologiaren atalean azaldu genuen bezala, EFQM Kalitate Osoa eta Bikaintasunaren irizpideei buruzko informazioa iturri desberdinetatik jaso da.

IRIZPIDEAK	INFORMAZIO- ITURRIAK		
	Erakunde Eskatzaileak	Erabiltzaile edo Parte-hartzaileak	HPS-ko Teknikariak
Politika-estrategia			
Lidergotza			
Pertsonak, Baliabideak eta Aliantzak			
Prozesua			
Emaitzak			
Inpaktua			

Taula: agente bakoitzarengandik jasotako informazioa

Hortaz, hurrengo tauletan, jasotako informazio hori sintetizaturik azaltzen da.

POLITIKA ETA ESTRATEGIA

HPS-RENGADIK JASOTAKO INFORMAZIOA	ERAKUNDE ESKATZAILEENGANDIK JASOTAKO INFORMAZIOA
1.- Deialdiari dagokionez Azpi-modalitate asko dira baina horrek Euskalgintzan egiten den guztiari sarbidea ematea du helburu bezala. Zalantza dago zer den Euskalgintza, ala zer den Euskalgintza deialdiak lagundu beharrekoa.	1.-Deialdiari dagokionez Batzuentzat, azpi-modalitateen errebisioa egitea beharrezkoa da. Beste batzuentzat, azpi-modalitateen arteko bereizketa zurrunegia da, eta beste batzuentzat egokiak dira. 2.- Helburu estrategikoei dagokienez Gehien bilatutakoak, euskarazko harreman-sareak zabaltzea, euskarazko produktu, ekintza edo zerbitzuen kontsumo edo erabilera sustatzea, eta hizkuntza-trebetasunak lantzea dira. 3.- Lan-arloari dagokionez Aztertutako egitasmoak diharduten arlo nagusiak aisialdia, kultura eta hezkuntza ez-formala dira. 4.- Esparru geografikoari dagokionez Gehienak Euskal Herri mailan garatzen dira. 5.- Euren proiektuei dagozkienez Proiektuen %67,9ak, helburuen lorpena neurtzeko prozedurak badituzte. Proiektu batzuek definitutako helburuak ez dira neurgarriak, edo ez dira zehatzak. Kasu batzuetan ez dira euskararen erabilpenari loturikoak.

LIDERGOTZA		
HPS-RENGANDIK JASOTAKO INFORMAZIOA	ERAKUNDE ESKATZAILEENGANDIK JASOTAKO INFORMAZIOA	ERABILTZAILEENGANDIK JASOTAKO INFORMAZIOA
1.- Euskalgintzan diharduten erakundeei dagokienez Bi erakunde-mota aritzen dira nagusiki Euskalgintzan: txikiak, eta handiak. Handiek, esparru geografiko handia hartzen dute barne, eta egitasmoak garatzeko zailtasun gutxiago dituzte. Erakunde txikien arteko elkarlana egin beharko litzateke euren inpaktua handitzeko. Euskalgintzaren sektorean profesionalizazioa falta da. Erakunde txikietan batez ere. Honen alde ona, euskalgintzarekiko konpromiso handia izan daiteke. Profesionalizazioa eman ezkerro, emaitzak agian hobeagoak izan zitezkeen.	1.- HPS-ko teknikariekin izandako harremanari dagokionez HPS-rekin izandako harremanak positiboak dira orokorrean. Batzuek urrun bezala ikusten dituzte. Teknikarien arreta oso ondo baloratua da.	1.- Egitasmoen arduradunekin izandako harremanari dagokionez Egitasmoen arduradunengandik jasotako arreta, euren eraginkortasuna eta erantzuteko denbora ondo baloratuak dira.

PERTSONAK, BALIABIDEAK, ALIANTZAK		
HPS-RENGANDIK JASOTAKO INFORMAZIOA	ERAKUNDE ESKATZAILEENGANDIK JASOTAKO INFORMAZIOA	ERABILTZAILEENGANDIK JASOTAKO INFORMAZIOA
1.- Baliabide ekonomikoei dagokienez Sektore defizitariora da eta baliabide gehiago behar da. Erakundeen arteko elkarlana bultzatu beharra dago, baliabideak optimizatzeko eta emaitzei begira ere, inpaktu handiagoa sortarazteko.	1.- Baliabide ekonomikoei dagokienez Baliabide gehiago behar da. Kasu askotan HPS-rengandik jasotako diru-laguntza murriztu egin da, eta auto-finantzaketa handitu da. 2.- Baliabide materialei dagokienez Proiektuen %49,3erako materialak erosten dira. 3.- Pertsonen dagokienez %37,5rako pertsonak kontratatzen dira.	1.- Baliabide materialei dagokienez Orokorrean, baliabideak ondo baloratuak dira. 2.- Pertsonen dagokienez Pertsonengandik jasotako arreta, haien eraginkortasuna eta erantzuteko denbora, positiboki baloratuak dira.

PROZESUA		
HPS-RENGANDIK JASOTAKO INFORMAZIOA	ERAKUNDE ESKATZAILEENGANDIK JASOTAKO INFORMAZIOA	ERABILTZAILEENGANDIK JASOTAKO INFORMAZIOA
1.- Deialdiaren prozesuari dagokionez Deialdiaren prozesuari buruz, badakite epeak luzatzea erakundeen kalerako dela. Lehenago argitaratu beharko litzateke eta baita ebatzi ere, erakundeek arrisku hain handia ez hartzeko. Epeak luzatzeak hilkortasun-tasa handitzen du.	1.- Deialdiaren prozesuari dagokionez Deialdiari buruz, prozedura arindu behar dela diote: paper gutxiago prestatu behar izatea, lehenago ebatzea eta esleitzea, ... 2.- Proiektuen prozesuei dagokionez: %82,1ak ez dira berriak, eta hauen artean, gehienek berrikuntza edo aldaketak izan dituzte. Difusioari dagokionez, erakunde gehienentzat garrantzi handia edo oso handia dauka, eta dirulaguntza eskatzerakoan kontutan izaten dute. Gehienek aurrekontuaren %0-25 artean erabiltzen dute difusiorako, eta gehien erabilitako bideak webguneak, e-maila, idatzizko prentsa eta ahoz ahoko difusioa dira.	1.- Proiektuen prozesuei dagokionez Difusioari dagokionez, gehienentzat egindako difusioa egokia edo oso egokia den arren, hobetu beharreko alderdien artean, aipatuena difusioarena da, hau da, egitasmoen difusio handiagoa eta zabalpen handiagoa egin beharko litzaiekeela deritzote. Egitasmoak ezagutzeko bideei dagokionez, gehien aipatutakoak ingurukoak, e-mailak, kartelak eta idatzizko prentsa dira.

EMAITZAK


ERAKUNDE ESKATZAILEENGANDIK JASOTAKO INFORMAZIOA	ERABILTZAILEENGANDIK JASOTAKO INFORMAZIOA
1.- Ekintza, produktu edo zerbitzuaren balio bereziari dagokionez Garatutako ekintza, produktu edo zerbitzuen balio bereziari buruz 2.- Erabiltzaile kopuruari dagokionez Gehienek, aurreko urteekiko erabiltzaile edo parte-hartzaile kopuruaren hazkundera izan dute. Dena dela, askok ez dute zehazten zenbatekoa den haien balizko populazio osoaren kantitatea, eta zaila egiten zaie zenbatengana heldu diren ere kuantifikatzea. 3.- Erabiltzaileen satisfazioari dagokionez Gehienek neurtzen dute, eta honen arabera aldaketa edo egokitzapenak egiten dituzte egitasmoetan. 4.- Helburuen lorpenari dagokionez Lorpen-maila handia ematen da.	1.- Ekintza, produktu edo zerbitzuen balio bereziari dagokionez Erabiltzaileek gehien baloratzen dutena, euskal giro edo testuingurua eskaintzea, euskara erabiltzeko aukera ematea, euskarazko harreman-sareak eratzea, elkartrukatzea eta parte-hartze edo interakzioa erraztea, tokikoak eta hurbilak izatea. 2.- Ekintza, produktu edo zerbitzuen kalitateari dagokionez Orokorrean, positiboki baloratuak dira. 3.- Satisfazioari dagokionez Erabiltzaileen satisfazioa altua da, eta gehienek inguruko norbait gomendatzeaz gain, aukera izan ezker berritoki parte hartuko edo erabiliko zituzketen.

7.-ERAGINDAKO INPAKTUAREN ESTIMAZIOA

Erakundeei, haien ustez haiek garatutako proiektuek euskararen normalizazioan eragindako inpaktua baloratu zuten.

ERAGINDAKO INPAKTUA	PROIEKTU-KOPURUA
Oso txikia	%1,8
Txikia	%3,6
Ertaina	%8,9
Handia	%51,8
Oso handia	%28,6
Ez du zehaztu	%5,4
GUZTIRA	%100

Taula: erakundeen arabera, egitasmoek eragindako inpaktua



Grafikoa: erakundeen iritziz, proiektuek eragindako inpaktua

Erakundeei, euren proiektuek eragindako inpaktuaz galdetzerakoan, hauek dira emandako erantzun nagusiak:

- Euskararen erabilpen-ohituretan aldaketak eragiten dituzte, erabilpen-maiztasuna handituz
- Hizkuntzarekiko kontzientzia eragiten dute, gogoeta eragitearen bidez
- Inplikazioa, motibazioa eta erabilera bultzatzen dute
- Giro desberdinak euskalduntzen dituzte
- Euskararen prestigioa handitzen laguntzen dute

Beraz, aztertutako egitasmoen %80,4en kasuan, hauek euskararen normalizaziorako eragindako inpaktua handia edo oso handia zela esaten dute. Dena dela, askok ez dute inpaktu hori neurtzeko edo estimatzeko prozedurarik zehaztu.

Testuinguru teorikoan azaldu dugun bezala, Euskalgintza deialdiak, euskararen normalizazioa lortzeko, hiru bitarteko-helburu bete beharko ditu:

- 1) Euskararen transmisioa sustatzea
- 2) Erabilera soziala sustatzea
- 3) Kalitatea eta estatusa bermatzea.

Egitasmoek euren erabiltzaileengan (eta azken finean, gizartearengan) eragindako inpaktua estimatzeko, guk Hizkuntza Biziaren Euskarriak (Martinez de Luna, 2001) eredua¹⁰ hartu dugu oinarri. Eredua honen arabera, hizkuntza baten erabileran eragiten duten faktore nagusiak hiru dira:

- Norbanako ezaugarriak: hizkuntza-gaitasun erlatibo handia, eta erabilerarako motibazioa.
- Harreman-sareak: aldeko baldintza demo-linguistikoak izatea, eta beste euskaldunekiko harreman-sareak.
- Gizartearen egitura: euskara erabiltzeko ageriko onarpena eta mota guztietako gizarte-talde eta erakundeen aldetik, eta hizkuntzaren gizarte-ospe eta erakargarritasuna.

Beraz, Euskalgintza deialdiaren bidez diruz lagundutako egitasmoen inpaktua estimatzeko, alde batetik, helburu horiei lotutako iritzia ezagutu dugu, eta bestetik, haiengan eragindako aldaketei buruzko iritzia jaso dugu.

¹⁰ Ikus: Zarraga, A. et al (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Gasteiz: Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza. 55.orr.

7.1.-EUSKALGINTZA DEIALDIAREN HELBURUEN LORPENA


Hiru multzotan biltzen dira: Euskararen transmisioa bultzatzea, euskararen erabilpena sustatzea, eta euskararen kalitate edo estatusa hobetzen laguntzea.

1.- EUSKARAREN TRANSMISIOA

Egitasmoek euskara-maila hobetzen laguntzeko duten egokitasuna

EGOKITASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Oso egokia	% 40,6
Egokia	% 31,5
Ez egokia, ez desegokia	% 20
Desegokia	% 4,8
Oso desegokia	% 0,6
Ez daki edo ez du erantzun	% 2,4
GUZTIRA	% 100

Taula: euskara-maila hobetzen laguntzeko duten egokitasuna




Grafikoa: euskara-maila hobetzen laguntzeko duten egokitasuna

Egitasmoek euskararen transmisioa sendotzeko duten egokitasuna

EGOKITASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Oso egokia	% 51,5
Egokia	% 30,3
Ez egokia, ez desegokia	% 13,3
Desegokia	% 3
Oso desegokia	% 0
Ez daki edo ez du erantzun	% 1,8
GUZTIRA	% 100

Taula: euskararen transmisioa sendotzeko duten egokitasuna




Grafiko: euskararen transmisioa sendotzeko duten egokitasuna

Egitasmoek, euskal historia eta kultura gehiago ezagutarazteko duten egokitasuna

EGOKITASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Oso egokia	% 31,5
Egokiak	% 24,8
Ez egokia, ez desegokia	% 24,2
Desegokia	% 13,3
Oso desegokia	% 2,4
Ez daki edo ez du erantzun	% 3,6
GUZTIRA	% 100

Taula: euskal historia eta kultura gehiago ezagutzeko duen egokitasuna




Grafikoa: euskal historia eta kultura gehiago ezagutzeko duen egokitasuna

2.- EUSKARAREN ERABILPENA

Egitasmoek, euskararen erabilpena sustatzeko duten egokitasuna

EGOKITASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Oso egokia	% 61,2
Egokia	% 30,3
Ez egokia, ez desegokia	% 6,1
Desegokia	% 0
Oso desegokia	% 0
Ez daki edo ez du erantzun	% 2,4
GUZTIRA	% 100

Taula: euskararen erabilpena sustatzeko egokitasuna




Grafikoa: euskararen erabilpena sustatzeko duten egokitasuna

Egitasmoek, euskara arlo gehiagotara zabaltzeko duten egokitasuna

EGOKITASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Oso egokia	%47,9
Egokia	%32,1
Ez egokia, ez desegokia	%12,7
Desegokia	%2,4
Oso desegokia	%0,6
Ez daki edo ez du erantzun	%4,2
GUZTIRA	%100

Taula: euskara arlo gehiagotara zabaltzeko duen egokitasuna




Grafikoa: euskara arlo gehiagotara zabaltzeko duen egokitasuna

Egitasmoek, euskarazko harreman sareak sendotzeko duten egokitasuna

EGOKITASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Oso egokia	% 55,2
Egokia	% 26,7
Ez egokia, ez desegokia	% 11,5
Desegokia	% 3,6
Oso desegokia	% 0,6
Ez daki edo ez du erantzun	% 2,4
GUZTIRA	% 100

Taula: euskarazko harreman-sareak sendotzeko duten egokitasuna




Grafikoa: euskarazko harreman-sareak sendotzeko duten egokitasuna

3.- EUSKARAREN KALITATEA EDO ESTATUSA

Egitasmoek, gai jakin batean trebatzeko duten egokitasuna

EGOKITASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Oso egokia	%34,5
Egokia	%29,1
Ez egokia, ez desegokia	%18,2
Desegokia	%4,8
Oso desegokia	%1,8
Ez daki edo ez du erantzun	%3
GUZTIRA	%100

Taula: gai jakin batean trebatzeko duten egokitasuna




Grafikoa: gai jakin batean trebatzeko duten egokitasuna

Egitasmoek, jakintzak zabaltzeko duten egokitasuna

EGOKITASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Oso egokia	% 38,2
Egokia	% 33,9
Ez egokia, ez desegokia	% 18,2
Desegokia	% 4,8
Oso desegokia	% 1,8
Ez daki edo ez du erantzun	% 3
GUZTIRA	% 100

Taula: jakintzak zabaltzeko duten egokitasuna




Grafikoa: jakintzak zabaltzeko duten egokitasuna

Egitasmoek, euskararen estatus edo prestigioa hobetzen laguntzeko duten egokitasuna

EGOKITASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Oso egokia	% 55,2
Egokia	% 29,7
Ez egokia, ez desegokia	% 10,9
Desegokia	% 0,6
Oso desegokia	% 0,6
Ez daki edo ez du erantzun	% 3
GUZTIRA	% 100

Taula: euskararen estatus edo prestigioa hobetzen laguntzeko duten egokitasuna



Grafikoa: euskararen estatus edo prestigioa hobetzen laguntzeko duten egokitasuna

7.2.- ERABILTZAILEENGAN ERAGINDAKO INPAKTUA

Soziolinguistika Klusterrak argitaratutako Soziolinguistika Eskuliburuan¹¹ jasotako Hizkuntza Biziaren Euskarriak (Martinez de Luna, 2001) eredua hartu da oinarri inpektua aztertzeke. Eredue honen arabera, hizkuntzaren erabilpena hiru faktoreren menpe egongo litzateke: Norbanakoaren ezaugarriak, Harreman-sareak, eta Gizarte-egitura.


1.- NORBANAKOAREN EZAUGARRIETAN ERAGINDAKO INPAKTUA

Erabiltzaileei, hurrengo baieztapenekiko adostasun-maila adierazi zuten:

“Egitasmoari esker, hizkuntzaren ezagutza eta trebetasunak hobetu ditut”

ADOSTASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Erabat ados	% 33,9
Ados	% 26,7
Ez ados, ez desados	% 25,5
Desados	% 3
Erabat desados	% 4,8
Ez daki edo ez du erantzun	% 6,1
GUZTIRA	% 100

Taula: hizkuntzaren ezagutza eta trebetasunak hobetu dituzten




Grafikoa: hizkuntzaren ezagutza eta trebetasunak hobetu dituzten

¹¹ Zarraga, A. et al (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Gasteiz: Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza.

“Egitasmo honi esker, euskara gehiago erabili dut”

ADOSTASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Erabat ados	% 30,3
Ados	% 19,4
Ez ados, ez desados	% 27,9
Desados	% 9,1
Erabat desados	% 6,1
Ez daki edo ez du erantzun	% 7,3
GUZTIRA	% 100

Taula: euskara gehiago erabili duten




Grafikoa: euskara gehiago erabili duten

“Egitasmoari esker, euskararekiko jarrera positiboagoa daukat”

ADOSTASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Erabat ados	% 43,6
Ados	% 23,6
Ez ados, ez desados	% 20
Desados	% 3,6
Erabat desados	% 3
Ez daki edo ez du erantzun	% 6,1
GUZTIRA	% 100

Taula: euskararekiko jarrera positiboagoa duten



Grafikoa: euskararekiko jarrera positiboagoa duten


2.- HARREMAN-SAREETAN ERAGINDAKO INPAKTUA

Erabiltzaileei, hurrengo baieztapenekiko adostasun-maila adierazi zuten:

“Egitasmoari esker, euskarazko harreman-sareak zabaldu ditut”

ADOSTASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Erabat ados	% 46,7
Ados	% 22,4
Ez ados, ez desados	% 18,8
Desados	% 3,6
Erabat desados	% 3
Ez daki edo ez du erantzun	% 5,5
GUZTIRA	% 100

Taula: euskarazko harreman-sareak zabaldu dituzten



Grafikoa: euskarazko harreman-sareak zabaldu dituzten


3.- GIZARTE-EGITURAN ERAGINDAKO INPAKTUA

Erabiltzaileei, hurrengo baieztapenarekiko adostasun-maila adierazi zuten.

“Egitasmoari esker, euskara lehen baino arlo gehiagotan erabiltzen dut”

ADOSTASUN-MAILA	ERABILTZAILE-KOPURUA
Erabat ados	% 30,3
Ados	% 21,2
Ez ados, ez desados	% 26,1
Desados	% 5,5
Erabat desados	% 7,9
Ez daki edo ez du erantzun	% 9,1
GUZTIRA	% 100

Taula: euskara lehen baino arlo gehiagotan erabiltzen duten



Grafikoa: euskara lehen baino arlo gehiagotan erabiltzen duten

INPAKTUA:

EUSKALGINTZA DEIALDIAREN HELBURUEN LORPENA

EUSKARAREN TRANSMISIOA	EUSKARAREN ERABILPENA	EUSKARAREN KALITATEA EDO ESTATUSA
• %72,1arentzat, euskara-maila hobetzen laguntzeko egokiak edo oso egokiak dira. • %81,8arentzat, euskararen transmisioa sendotzeko egokiak edo oso egokiak dira. • %56,3arentzat, euskal historia eta kultura gehiago ezagutarazteko egokiak edo oso egokiak dira.	• %91,5arentzat, euskararen erabilpena sustatzeko egokiak edo oso egokiak dira. • %80arentzat, euskara arlo gehiagotara zabaltzeko egokiak edo oso egokiak dira. • %81,9arentzat, harreman-sareak zabaltzeko egokiak edo oso egokiak dira.	• %63,6arentzat, gai jakin batean trebatzeko egokiak edo oso egokiak dira. • %72,1arentzat, jakintzak zabaltzeko egokiak edo oso egokiak dira. • %84,9arentzat, euskararen estatus edo prestigioa hobetzen laguntzeko egokiak edo oso egokiak dira.

INPAKTUA:

ERABILTZAILEENGAN ERAGINDAKO INPAKTUA

NORBANAKO EZAUGARRIAK	HARREMAN-SAREAK	GIZARTE-EGITURA
• %60,6ak hizkuntza-ezagutza eta trebetasunak hobetu dituela dio. • %67,2ak euskararekiko jarrera positiboagoa duela dio. • %49,7ak euskara gehiago erabiltzen duela dio. .	• %69,1ak euskarazko harreman-sareak zabaldu dituela dio.	• %51,5ak euskara lehen baino arlo gehiagotan erabiltzen duela dio.

Inpaktuari buruzko datuak ikusita, Euskalgintza sektorea bide onetik doala esan genezake.

Euskalgintza deialdiaren helburuen lorpenari dagokionez, arlo eta gai desberdinetan diharduten egitasmoak laguntzeak, faktore askotan eragitea ahalbidetzen du. Datuek erakusten dutenez, erabiltzaile gehienek laguntzen diren egitasmoek euskararen erabilpena sustatzeko egokiak direla diote. Honetaz aparte, egokitasun edo eraginkortasuna, gehien bat, euskararen estatus edo prestigioa hobetzen laguntzeko, harreman sareak zabaltzeko, transmisioa sendotzeko eta euskara arlo gehiagotara zabaltzeko da. Noski, ezin dira alderdi hauek banaka baloratu, guztiek elkarren artean eragiten baitute.

Erabiltzaileengan eragindako inpaktuari dagokionez, emaitzak hain onak ez direla pentsa genezake. Dena dela, datu horiek interpretatzerako orduan, erabiltzaileetako parte bat beti euskaraz aritzen den, euskara-trebetasun osoa duten, eta euskararekiko jarrera ezin positiboagoa badutela izan behar da kontutan. Hortaz, erabiltzaileen sektore hori hor badagoela jakinda, gainontzekoengan eragindako inpaktua altua dela esan genezake.

8.- AZKEN BALORAZIOA

Aurreko atalean azaldutako datuei so egiten badiegu, Euskalgintza sektorean diharduten erakundeak bide onetik doazela esan genezake. Hau, prozesu osoan praktika onak aurrera eramatearen ondorio izan daiteke. Dena dela, EFQM eredua oinarri hartuz jasotako informazioa aztertuta, ahulgune batzuk topa daitezke.

Gaur egun sektorea dagoen moduan egonda, eragindako inpaktua positiboa bada, identifikatu diren indar-guneetan indarra jarritz, eta identifikatutako ahulguneetan hobekuntzak eginez inpaktua hobe litekeela esan genezake.

Hurrengo tauletan, prozesu osoan identifikatutako ahulgune eta indar-guneak jasotzen dira, hurrengo atalean, hobekuntzak egiteko proposamenak azalduko direlarik.

	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
POLITIKA ETA ESTRATEGIA	Deialdiari dagokionez, azpi-modalitate ugari izateak Euskalgintza sektorean egiten den guztiak sarbidea izatea ahalbidetzen du. Proiektu gehienek euren helburuak ondo definituak dituzte, neurgarriak dira, prozedurak dituzte, eta euskararen erabilpenari lotuak dira.	Deialdiari dagokionez, ez dago argi zer den Euskalgintza deialdian lagundu beharrekoa. Proiektu batzuek ez dituzte helburu neurgarriak definitzen, edota ez dute neurtzeko prozedurarik, edota ez dira euskararen erabilpenari zuzenean lotzen.
LIDERGOTZA	Administrazio desberdinek diru-laguntzak ematen dituzte. HPS-ko teknikariak oso ondo baloratuak dira. Erakunde desberdinak aritzen dira sektorean. Konpromiso handia dute euskararekiko. Erakundeen arduradunengatik jasotako arreta oso ondo baloratua da.	Administrazioek ez dute adostu nork lagundu behar duen zer, eta bakoitzaren erabakiak besteengan eragiten du. HPS urrun bezala ikusten dute batzuek. Erakunde txikiak galtzaile atera daitezke diru-laguntzan. Profesionalizazioa falta da.

	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
PERTSONAK, BALIABIDEAK ETA ALIAINTZAK	Erakundeetan diharduten pertsonak oso ondo baloratuak dira. Deialdiari esker, baliabide materialak eskuratzen dira eta pertsonen kontratazioa egiten da. Egitasmoetan erabilitako baliabideak ondo baloratuak dira.	Sektore defizitarioa da eta baliabideak mugatuak dira. Arrisku handia hartzen dute erakundeek. Erakunde txikiak galtzaile atera daitezke. Elkarlana beharrezkoa da.
PROZESUA	Proiektu berrien sorkuntza bultzatzen da. Berriak ez diren proiektuek berrikuntza edo birmoldaketak dituzte. Difusioa ondo baloratua da.	Deialdiaren prozesua luzea da, eta berandu emateak proiektuen hilkortasun-tasa handitzen du. Erabiltzaileek diotenez, difusioa handitu behar da.
EMAITZAK	Garatutako produktu, ekintza edo zerbitzuak kalitatezkoak dira eta ondo baloratuak dira. Erakunde gehienetan erabiltzaile-kopurua hazi da. Erakunde gehienek emaitza onak dituzte. Erabiltzaileen satisfazioa oso altua da. Erabiltzaileen iritziaren arabera birmoldaketak egiten dira.	Erakunde batzuek ez dituzte erabiltzaileak kuantifikatzen. Erakunde batzuek ez dituzte emaitzak ebaluatzen Erakunde batzuek ez dute erabiltzaileen satisfazioa ebaluatzen.

9.- PROPOSAMENAK

Euskalgintza deialdiaren bidez eragiten den inpaktua handitzeko, proposamen batzuk egingo ditugu.

9.1.- Euskalgintza deialdia: lagundu beharrekoa

HPS-ko teknikariek azaldu dutenez, ez dago argi zer den Euskalgintza deialdian diruz lagundu beharrekoa. Gainera, Administrazio bakoitzak zer lagundu behar duen ere ez da eztabaidatu, baina bakoitzak hartzen dituen erabakiak besteengan eragiten du. Hortaz, Administrazioen arteko eztabaida egitea proposatzen da, Administrazio bakoitzak edota sail bakoitzak zer lagundu behar duen erabakitzeko. Hau HAKOBA-tik egin daiteke, organismo hau gogoeta-prozesu hau bideratzeko aproposa izan daitekeelako.

9.2.- Euskalgintza deialdia: prozesua

Administrazio-barruko lanak konplikatuak eta aldatzen zailak izan daitezkeen arren, deialdia arintzea gomendagarria iruditzen zaigu. Deialdiak urte hasieran atera beharko luke, lehen bait lehen ebatzi ahal izateko. Deialdia atzeratzeak eraginkorrak izan daitezkeen proiektuen hilkortasun-tasa handitzen du, eta hori Euskalgintza deialdiaren helburuaren aurkakoa da.

9.3.-Proiektuen ezaugarriak

Jasotako informazio guztia aztertuta, hobeto baloratuak diren egitasmoen ezaugarriak kontutan hartzen jarraitzea egokia litzateke. Gaur egun hauek dira gehien bat laguntzen direnak, eta bide onetik doazela baieztatu dezakegu. Ezaugarri horiek hauek dira:

- Harreman-sareak indartzeko eta euskal komunitatea trinkotzeko baliagarriak izatea.
- Egoera edo ekintza naturalen bidez, euskararen barneratzea erraztea.
- Euskara gozamenetik lantzea, honekiko jarrera positiboa eta motibazioa sortzeko.
- Tokikoak, gertukoak izatea. Euskal Herri mailan egiten direnak ere, tokiko ezaugarrietara egokitzea.
- Euskal giroa sortzea, euskaraz aritu ahal izateko testuinguruak eskaintzea.
- Praktikotasunarekin erlazionaturiko alderdiak jorratzea.
- Interakzioa eta parte-hartzea sustatzea.

- Ekintzak “ikusgai” egitea, euskaldunak erakartzeko, erdaldunak erakartzeko, eta “paisaia” ere euskalduntzeko.

9.4.- Erakundeek definitu beharrekoa

Erakundeek, egitasmo bakoitzean helburu zehatzak, neurgarriak eta euskararen erabilpenari zuzenean lotuak definitu beharko lituzkete. Honetaz aparte, euren egitasmo eta ekintzetan parte hartzen duen jende kopurua, euren produktuak erabiltzen dituzten jende kopurua zehazteko modua ezartzea komenigarria litzateke. Satisfazioa eta helburuen lorpena neurtzeko prozedurak ezarri beharko lituzkete, hauen arabera birmoldaketak egin ahal izateko.

9.5.- Erakundeen arteko elkarlana

Erakunde txikiak galtzaile izan daitezkeenez, elkarten arteko elkarlana gehiago bultzatu beharko litzateke. Horrela, baliabide ekonomiko gehiago lortzeko aukera izateaz gain, baliabide guztien optimizazioa egitea ahalbidetuko litzateke.

9.6.- Produktuen difusioa

Diruz lagundutako proiektu eta produktuek inpaktua izateko, ezinbestekoa da gizartearengana heltzea, eta horretarako difusio on bat egitea beharrezkoa da. Difusio hau bai Administrazioak, eta bai erakunde eskatzaileek egitea proposatzen dugu.

Administrazioak diruz laguntzen dituen bezala, hauen difusioa egin beharko luke, inpaktua izatea bermatzeko. Difusio hau barne baliabideen bidez egin dezake (HPS-ko webgunea, katalogoak, ...), baina baita kanpo baliabideak erabiliz ere (egunkarietan lagundutako proiektuen zerrenda bat argitaratuaz, adibidez).

Erakundeek, ordea, bere proiektuak aurkezterakoan, zer nolako difusioa egingo dioten azaldu beharko dute, eta horretarako erabiliko dituen bideak ere zehaztu.

9.7.- Proiektuen bankua

Baliabideen optimizazioa egiteko, euskararen erabilpena sustatzera zuzendutako egitasmoen banku bat egitea proposatzen da. Legediaren aurka ez jotzearen, boluntarioki, erakundeek eskaini ditzaketen egitasmoen fitxa tekniko bat osatuz eman dezakete euren proiektuen berri, interesa duten beste erakundeek haiekin harremanetan jar daitezten.

Beste modu bat, urtean behin diruz lagundutako erakundeen topaketa bat antolatzea izan liteke (Euskara Elkarten Topaguneak egiten dituen antzekoak), bertan proiektu desberdinak aurkezteko. Honek, alde batetik, erakundeei difusioa edo publizitatea egingo lieke, eta bestetik, beste erakundeei ideiak emateaz gain, elkarten arteko elkarlana bultzatu lezake.

9.8.- Erakundeei zuzendutako auto-ebaluaketarako tresna

Erakundeek auto-ebaluaketarako eta baita ere eragindako inpaktua estimatzeko erabili dezaketen tresna bat sortzea zen enkargua.

Erakundeek, haien hasierako helburuak bete diren jakiteko, ezinbestekoa da ebaluaketa egitea. Aldi berean, etengabe hobetzen joan ahal izateko, ebaluaketa egin behar da, indar-gune eta ahulguneak identifikatzeko.

Hortaz, auto-ebaluaketa egiterakoan, abiatutako egoera, ezarritako helburuak, erabilitako prozedurak eta garatutako prozesua, eta lortutako emaitzak kontutan hartuko dira.

Jasotako datu hauek, urte amaierako memorian jasoko daitezke, nahi izan ezkerro. Tresna, A.eranskinean ageri da.

9.9.- Erabiltzaileei zuzendutako tresna

Tresna hau erabiltzaileei zuzendutako galdeketa bat den arren, erakundeentzat lagungarri izango den tresna bat da, erabiltzaileen iritzia ezagutzeak eginiko lanaren kalitatea eta eragina estimatzen laguntzen duelako.

Tresna, B.eranskinean ageri da.

9.10.- Auditoria-sistema

Auto-ebaluazioaren bidez eta ebaluazio-galdeketen bidez jasotako datuak memorian erantsi daitezke. Administrazioak, txostenen artean, zoriz, erakunde edota proiektu batzuk aukeratzea proposatzen dugu, auditoria egiteko. Auditoria honen bidez, erakundeak aurkeztutako datu eta emaitzak zuzenak direla frogatuko da. Zoriz, galdeketei erantzun dioten 3 pertsonengana jotzea proposatzen dugu, datuak kontrastatzeko.

10.- ERANSKINAK

A. Erakundeei zuzendutako auto-ebaluaziorako tresna

B. Egitasmoen erabiltzaileei zuzendutako galdeketa

A. ERANSKINA: ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO AUTO-EBALUAKETARAKO TRESNA

1.- Hasierako helburuen lorpena

Helburu zehatzen lorpena zehaztu:	%0-25	%25-50	%50-75	%75-100
1.Helburu zehatza				
2.Helburu zehatza				
3.Helburu zehatza				
...				
Lorpenen batezbestekoa zehaztu:				
Balorazioa justifikatu:				

2.- Difusioa

Difusio-bideen erabilpena zehaztu:	%0-25	%25-50	%50-75	%75-100
1.Bidea				
2.Bidea				
3.Bidea				
...				
Betetakoaren batezbestekoa zehaztu:				
Balorazioa justifikatu:				

3.- Produktuak egiten duen ekarpen berezia:

Baloratu edo zehaztu:	%0-25	%25-50	%50-75	%75-100
1.Zenbateraino bete duen hutsune bat				
2.Zenbateraino lortu duen erreferente izatea				
Balorazioa justifikatu:				

4.- Inpaktua, lortutako erabiltzaile-kopuruari dagokionez:

Zehaztu:	
1. Zenbat pertsonak osatzen dute unibertsoa? (kopurua)	
2. Hauetako zenbatek erabiltzea espero genuen? (kopurua)	
3. Hauetako zenbatek erabiltzea espero genuen? (ehunekotan)	
4. Zenbatek erabili dute? (kopurua)	
5. Zenbatek erabili dute? (ehunekotan)	
6. Erabiltzaile kopuru osotik, zenbat dira berriak (azken urtekoak)?	
7. Zenbateko hazkundera eman da aurreko urtearekiko?	

5.- Produktuaz egiten duten erabilpena

Erabiltzaileek, zenbateko maiztasunez erabiltzen duten.

Zehaztu:	
1. Zenbateko maiztasunez erabili duten edo parte hartu duten, Batezbeste (egunero, astero, hilero, ...)	
2. Zenbat denboraz erabili duten edo parte hartu duten, Batezbeste (ordu/eguneko, ordu/asteko/, ordu/hilabeteko,)	

B. ERANSKINA: ERABILTZAILEEI ZUZENDUTAKO EBALUAZIO-TRESNA

Erantzun itzazu hurrengo galderak 1etik 5erako eskala batean, 1 oso desegokia eta 5 oso egokia direla kontutan hartuta.

1.- Erabilpenari buruz

Ekintza edo zerbitzuen kasuan, zenbat aldiz hartu duzu parte?
Zenbat denboraz? (zenbat egunez, zenbat astez, zenbat hilabetez, ...)
Produktuen kasuan, zenbat denboraz erabili dituzu? (ordu/eguneko, ordu/asteko, ordu/hilabeteko, ...)

2.- Kalitateari buruz

Balora itzazu:	1	2	3	4	5
Erabilitako baliabideen egokitasuna					
Giza-baliabideen prestakuntza					
Erabilitako euskararen kalitatea					
Antolamendu orokorra					
Diseinu orokorra					

3.- Antolatzaileekin izandako harremanari buruz

Produktu, ekintza edo zerbitzuaren arduradunekin harremana izan baduzu, baloratu:	1	2	3	4	5
Haiengandik jasotako arreta					
Haien Eraginkortasuna					
Erantzuteko denbora					

4.- Ekintza, produktu edo zerbitzuaren ezagutzeko modua

Balora ezazu	1	2	3	4	5
Zure ustez, erakundeak produktu, ekintza edo zerbitzuari egindako difusioa					
Nola izan zenuen ekintza, zerbitzu edo produktu honen berri?					
Irratiaren bidez		Egunkarien bidez			
Telebistaren bidez		Inguruko baten bidez			
Kartelen bidez		Webguneen bidez			
Esku-orrien bidez		Beste modu batez, zein?			

5.- Egitasmoak egiten duen ekarpena

Zein da egitasmoaren balio berezia?
Zein da egiten duen ekarpena?

6.- Inpaktuaz

Adieraz ezazu zein puntutaraino ados zauden hurrengo baieztapenekin:					
Egitasmo honi esker ...	1	2	3	4	5
Euskara gehiago erabili dut					
Euskararekiko jarrera positiboagoa izaten lagundu dit					
Euskarazko harreman-sareak zabaldu ditut					
Hizkuntzaren ezagutza eta trebetasunak hobetu ditut					
Euskara lehen baino arlo gehiagotan erabiltzen dut.					
Azalpenik eman nahi al duzu?					

7.- Satisfazioaz

Adierazi ezazu zein punturaino zauden ados hurrengo baieztapenekin:					
	1	2	3	4	5
Produktu/ ekintza/zerbitzuak nire igurikapenak bete ditu					
Aukera izango banu, berriro parte hartuko/erabiliko nuke					
Ekintza/zerbitzu/produktuagatik ordaindutakoa egokia da					
Aurreko galderetan emandako erantzuna arrazoitu					
Gomendatu al diozu inguruko norbaiti?	Bai	Ez			
Zergatik?					
Balora ezazu 1etik 10era zure satisfazio orokorra					

8.- Azken balorazioa

Zer uste duzu aldatu beharko litzatekeela, ekintza, produktu edo zerbitzua hobetzeko?

Zer uste duzu mantendu beharko litzatekeela?

Zerbait gehiago aipatu nahi al duzu?

BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 1982.eko abenduaren 16a, 160.alea, 3138.orrialdea.
- Agindua, 2010eko ekainaren 3koa, Kulturako sailburuarena, 2010ean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatutako programen kontura diru-laguntzak ematea arautzen duena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2010eko ekainaren 4a, 105.alea, 2862. orrialdea.
- Ebazpena, 2010eko abenduaren 2koa, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarena, Euskalgintza deialdiari dagozkion 2010eko diru-laguntzak esleitzen dituen. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2010eko abenduaren 28a, 248.alea, 6440.orrialdea.
- Calidad total: modelo EFQM de Excelencia. Euskalit- Fundación Vasca para la Excelencia, 2006.
- *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (1999-2009)*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1999.
- *Hizkuntza Politikaren Etorkizuna (2005-2009)*. Eusko jaurlaritza. Gasteiz, 2005.
- Reboloso, E., Fernández-Ramírez, B., y Cantón, P. (2008). *Evaluación de Programas de Intervención Social*. Madrid: Síntesis.
- Zarraga, A. et al (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Gasteiz: Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza.
- www.euskalit.net